



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2008-03-27

VIURTEA 1.392.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Alkate kargutik kendu dute Juan Ugarte gainerako zinegotziek

BIDEGOAIN Zentsura mozioa onartu zuten herenegun Udala osatzen duten EAren sei zinegotziek

ARRAZOIA «Berarenganako konfiantza eza» dutela azaldu dute; Ugartek zinegotzi karguan jarraituko du s



Jendearen aurrean prestatu zuten sukaldariak arkumea Triangulo plazan. HITZA

JENDE UGARI IZAN DA ARKUMEAREN FESTAN

TOLOSA 3.000 lagun baino gehiagok hartu du parte; Tolosa Gourmet ekimenak geroz eta arrakasta handiagoa du z

II. Poltsiko Antzerki Lehiaketa martxan da

ADUNA Asvineneak Ardilatxarekin antolatu du; bihar izango da izena emateko azken eguna s

ENAITZ OSTOLAZA
TXAKOLIN EGILEA

«Goizez ikasten eta arratsaldez baserriko lanetan aritzen naiz»

IBARRA Getarian jaioa, Ibarako ikastolan ikasi zuen; orain sorterrira itzuli da 6



AJMAZ





bidali opor hauetako argazkiak!



Bidaia Agentzia
bidaide sercom



Aisia
ADUNA
Bainuetxean
(Orduñan, Bizkaian)
2 pertsonentzat.



Bi pertsonentzako bazkari edo afaria
Berrobiko **Iriarte**
Jatetxean.

ARGAZKIAK NORA BIDALI

- P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldekohitza.info
- Postaz: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Araba etorbidea 5 behea, atzea 20400 TOLOSA
- Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZAren egoitzetara ekarri



Hamabost arkume hil zituzten Trianguloan, jendearen aurrean, eta ondoren pintxotan jarrita banatu zuten; denera, 1.200. HITZA

3.000 lagun baino gehiagok hartu du parte arkumearen festan

Tolosa » Datuek adierazten duten bezala, gero eta arrakasta handiagoa du Tolosa Gourmet ekimenak.

ESTI EZEIZA

3.000 lagunetik gora bildu da Aste Santuan ospatutako Eusko Labeldun Arkumearen Festan. Hilaren 19 eta 23a bitartean gauzatu zen jai eta hainbat ekitaldi zuzatu ahal izan zen. Betiere, protagonista nagusia bildotsa zelarrik. Denera, 1.500 kilo arkume jan ziren. Horietatik, 50, menestra erraldoia egiteko erabili ziren, eta gainontzekoa, otorduetarako.

Tolosa gero eta turista gehiagoren erakarle ari da bilakatzen, eta horretarako, amu garrantzitsua da gastronomiarena. Idi txuletarekin hasi zen Tolosa Gourmet izeneko ekimena, ondoren babarruna etorri zen, gero arrautza, eta oraingoa arkumea izan da errege. Jaialdi guztiek ere arrakasta izan dute eta gero eta indar gehiago hartzen da. Hori baieztatzen dute antolatzaileek luzatutako datuek. Izan ere, iaizko Aste Santuan ospatutako Arrautzaren festan 1.400 lagunek hartu zuten parte otorduetan, eta aurren, 3.000k.

Tolosak duela urte gutxi egin zuen apustu honekin hasi zen eskaintzen, elikagai tradizionala abiatuta, lanketa fin eta zainduekin plater bakar eta paregabeak sortuz, zapora berriak eskaintzen dituzten era askotako jakiak dastatzeko aukera.

Menestra erraldoia

Hilaren 21ean, Eusko Labeldun arkumez egindako menestra erraldoia prestatu zuten Triangulo plazan. Honen prestaketaz, joan den urteko tortilarenaz bezala, Martin Berasategi arduratu zen prestaketa ikuskatzeaz. Berarekin batera aritu ziren lanean, Kabi Alai elkarteak kideak eta Fronton jate-txeko Roberto Ruiz sukaldaria. Menestra erraldoia sukaldatzeko, 50 kilo arkume eta beste 50 kilo barzaki erabili zituzten. Horien artean, azenarioak, alkatzofak, ilarrak eta patatak. Baita ere, behar izan zituzten, 10 litro olio eta kilo bat gatz. Hau guztia egin ahal izateko, 1,5 metro diametro eta 50 zentimetroko sakonerako zartagia erabili zuten. Ondoren, herritarren artean banatu zuten menestra berezi hau, denera, 1.500 lagunei banatu zuten.

Bestalde, harrera oso ona izan zuten arkume pintxoek. Halaber, 1.200 lagunek dastatu ahal izan zituzten dohainik. Hauek Urkaiko Kooperatibak eta Divinus Cateringek prestatu zituzten. Honetarako, 15 bildots jendaurrean sukaldatu zituzten, erretegi handi bilakatu Triangulo plaza. Honenbestez, herritarrek nahiz leku ezberdinetako bisitariak gozatu zuten Eusko Labeldun Arkumearen festaz. Hala, Tolosaldeko herritarrez gain, Madril, Herrialdeko Katalanetako, Andaluziako eta Galizia, Italia, Norbegoia eta Frantziako jendea bertaratu zen joan den asteak Tolosako festaz gozatzeri.

Ekitaldien artean ere, Zaldibia-ko Pedro Arruabarrena eta Kar-



Martin Berasategiren zuzendaritzapena, menestra erraldoia egin zuten. HITZA

mele Aduriz artisauak latxa ardiaren artilea nola landu erakutsi zuten hilaren 19an.

Bisitari asko erakarri du jaiak

Tolosalde Tour eskualdeko turismo bulegoak luzatutako datuen arabera, bertaratu diren turista askok, Tolosara etortzen ziren lehendabiziko aldian zuten. Gainera,

eskualdeko hiriburura ez ezik, inguruko herriak ezagutzeko ere aprobetxatu dituzte bisitariak, Aste Santuko egunak. Bestalde, otorduetan parte hartu duten kanpotarrei, txartel bat banatu zien, inguruko museo eta jauregi-tan doan sartzeko, nahiz hiriko Alde Zaharretik bisita gidatu bat egin ahal izateko.

Laburrak

Karrantzara txangoa antolatu du Bizi Nahi-ki

IBARRA » Bizi Nahi Ibarroko jubilatua eta erretiratuen elkarteak Karrantzara (Bizkaia) txangoa antolatu du apirilaren 10erako. Egun horretan ohiko lekutik aterako dira autobusez, 08:00etan. Izen-ematea datorren aslehenetik aurrera egin ahal izango da, bulegoko ordutegian. Honetarako, interesatuek NAN eta Kutxako urrezko txartela aurkeztu beharko dute. Izan ere, bidaia ordaintzeko 36 euro kenduko dizkiete kontu korrontetik. Bestalde, elkarteak sei euro emango dizkie bazkideei kostuak murrizteko asmoz.

Irrintzi elkartearen 26. Mus Txapelketa, etzi

VILLABONA » Irrintzi elkarteak antolatuta, Mus Txapelketa jokatu dute etzi arratsaldean. Asteburu honetakoa 26.a izango da. Bertan, bazkideek soilik hartu ahal izango dute parte. Txapelketa 16:30ean hasiko da, eta elkartearen bertan jokatu dute. Gainera, larunbatekoan parte hartzen duten lehiakideetatik, onenak Aiztondoko zazpi elkartearen arteko txapelketa iga-roko dira.

Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berasategi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarralde. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Hirugarrenez Intxurrekoak txapeldun Idiazabal

Alegia » Futbol taldeko infantil eta kadeteek jokatu dute txapelketa; Intxurren 5 golak Ormazabalek egin zituen.

NEREA URBIZU

Alegiko futbol taldeko infantil eta kadeteek Idiazabalgo futbol 8 txapelketa jokatu berri dute eta aurren ere txapela ekarri dute Alegia. Izan ere, aurtengoa hirugarren urtea da jarraian irabazten dutena.

Intxurre, Idiazabal eta Trintxerpe-Azkuene taldeak aritu dira eta hiruen artean jokatu dute. Emaitzak hauek izan dira: Intxurre 3, Idiazabal 1; Intxurre 2, Trintxerpe-Azkuene 2; Idiazabal 3, Trintxerpe-Azkuene 4. Beraz, txa-



Aurtengo talde txapelduna, Xabat Renobalesekin batera. PATXI RENOBALDES

pelduna, Alegia. Bigarren, berriz, Trintxerpe-Azkuene.

Intxurrek 5 gol egin zituen ligaxka honetan, eta bostak Inigo

Ormazabal kapitainak lortu zituen. Xabat Renobalesek entrenatzen ditu futbol jokalaririk gabekoak.



Saskibaloia izan zen atzoko izarra

ZIZURKIL » Atzo, Zizurkilgo, Adunako, Alkizako, Asteasu eta Larraulgo 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoak Zizurkilgo Pedro Mari Otaño ikastetxeko frontoian elkartu ziren saskibaloian eta patinetan ibiltzeko. Haienkin batera Kaxkagor elkarteko bi begirale izan ziren.

Hainbat ginkana prestatu zituzten patinekin ibiltzeko, baina atzoko izarra saskibaloia izan zen. Gaur, berriz, Astigarraga aldera doaz, sagardo etxera, hain zuzen, sagardoa nola egiten den ikusteko, sagarrondoak ikusteko eta abar. N. URBIZU

Xabi Fernandez eta Iker Martinez, Europakoan lehenengo postuan

Ibarra » Belan, 49er modalitatean ari dira lehiatzen Madrid 2016 europarrean; igandean onenak ariko dira.

ERREDAKZIOA

Xabi Fernandez ibartarrak Iker Martinez hondarrabiarrarekin batera Europako Bela Txapelketan

lehen postuan jarraitzen du lortutako azken emaitzei esker.

Mallorcako (Herrialde Katalanak) uretan herenegun izaniko lehian, bikote euskaldunak bosgarren, lehenengo eta hamargarren postuak lortu zituen. Modu onetara Europako Txapelketan lehen postuan jarraitzen dute, bigarren doazenei 8 puntuko aldea ateratzen dietelarik.

Beraz, sailkapen orokorrean

Xabi Fernandez eta Iker Martinez daude lehenengo postuan, bigarren postuan Federico eta Arturo Alonso anaiak, eta hirugarrenak, berriz, Jonas Lindberg eta Kalle Torlen suediarrek.

Gaur beste 3 proba izango dituzte euskaldunek, 12:00etatik aurrera, azken saioko lehen probak, hain zuzen. Larunbatera arte izango dira azken saioak, eta igandean onenak lehiatuko dira.

TXOTX

Urbarte

Ergoiena auzoa
Tel.: 943 180 119 Ataun

Laia

Arkolla auzoa, 33 (www.laiaerretegia.com)
Tel.: 943 646 309 (info@laiaerretegia.com) Hondarribi

Lindurrenborda

Nabaz auzoa
Tel.: 948 637 212 Lesaka

Ola

Meaka auzoa, 102
Tel.: 943 623 130 Irun

Aduriz

Araneder bidea, 28. Iturriotz auzoa
Tel.: 943 494 353 Oiartzun

Egi Luze

Zamalbide auzoa
Tel.: 943 523-905 Errenteria

Ixopinondo

Sagamotegia bidea, Lan Zelai (ixopinondo@wanadoo.fr)
Tel.: 559 546 234 Azkaine

Bordatto

Bordatto etxaldea
Tel.: 559 491 822 Jatsu

Donosti

Zamalbide, 8
Tel.: 943 526 041 Errenteria

Txidurri Iturri

Mendari auzoa (www.txidurri.com - txidurri@txidurri.com)
Tel.: 943 199 389 - 699 684 490 Itziar

Arratzain

Arratzain Zahar baserria (www.agroturismoarratzain.com)
Tel.: 943 366 663 (info@agroturismoarratzain.com) Usurbil

Begiristain

Iturrioz baserria
Tel.: 943 652 837 Ikaztegieta

Isastegi

Aldaba Txiki, 15-A (www.isastegisagardotegia.com)
Tel.: 943 652 964 (isastegi@isastegisagardotegia.com) Tolosa

Sarasola

Bebailara auzoa
Tel.: 943 690 283 Asteasu

Zabala

Garagartza baserria (www.rzabala.com)
Tel.: 943 690 774 (info@rzabala.com) Aduna

Otazu

Otazu baserria
Tel.: 943 670 044 Leaburu

Eguzkitza

Eguzkitza baserria - Usabal auzoa, 35
Tel.: 660 654 317 Tolosa

Erreka

Erreka auzoa
Tel.: 948 510 625 Leiza

Elutxeta

Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria
Tel.: 943 556 981 Urnieta

Larre Gain

Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani

Otsua-enea

Osiñaga auzoa
Tel.: 943 556 894 Hernani

Iparragirre

Osiñaga auzoa www.iparragirre.com
Tel.: 943 550 328 Hernani

Rezola

Ipintza baserria - Santio Zaharra - rezolasagardotegia@euskalerria.org
Tel.: 943 556 637 Astigarraga

Oialume Zar

Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 Astigarraga

Gartziategi

Gartziategi baserria www.gartziategi.com
Tel.: 943 469 674 Astigarraga

Akelenea

Oialume bidea 57 www.sidreriaakelenea.com
Tel.: 943 333 333 info@sidreriaakelenea.com Astigarraga

Gurutzeta

Oialume bidea 63 (sarrera Ergobia auzotik) gurutzeta@gurtzeta.com
Tel.: 943 552 242 www.gurutzeta.com Astigarraga



Arratsaldero jende ugari biltzen da Kultur Etxean koadroak margotzeko. HARRIET BELLOSO

Gure barrenean dugun artista ateratzeko txoko aproposa

Tolosa » Kultur Etxean antolatzen dituzten ikastaroetan ikasleek pintura ezagutzeko eta koadroak margotzeko aukera dute.

HARRIET BELLOSO

Pinturak eta marrazkilaritzak garrantzi handia izan dute Tolosako bizitza kulturalan. Aranburu Jauregian erakusketa ikusgarriak antolatzen dituzte eta ohikoa izaten da Euskal Herriko margolari entzutetsuen lan baliotsuenak bertan ikusi ahal izatea. Baina artista ezezagunek beraien obrak eta ideiak garatzeko lekua ere badute. Kultur Etxean antolatzen dituzten ikastaroetan herriko jendeak pinturaren sekretu eta teknika guztiak ikasteko aukera izaten dute.

Pintura ezagutzen

Ikastaro hauek Tolosako udal-erakundearen ekimena dira, eta pinturaz gain, zeramika, argazkilaritza, ballet eta eskulan kurtsoak eskaintzen dituzte, besteak beste, arrakastatsuen pinturaren izanik.

Tailer hau duela hamabost urte eratu zen herritarrei zerbait desberdina proposatzeko asmoz. Hasiarik gehiengo jende heldua izan da, eta nahiz eta joera horrekin amaitu nahi izan den, ikasleen adina urtero handitzen joan da. Jende gazteak, lana edo ikasketak direla medio, zailtasun gehiago ditu ikastaro hauetan parte hartzeko, horregatik berrogei eta hirurogei urte bitarteko jendea da nor-

malean Kultur Etxera gerturatzeko dena gauza berriak ikastera edo beraien obrak lantzerantz.

Ikasturte honetan hirurogeita hamar pertsona daude matrikulatuta lantegian, eta orokorrean ikasle guztiak saio gehienetara joaten dira. Urte hasieran ikasle kopuru berdintsua egoten da, baina hila-beteak aurrera doazen heinean jende berria sartzen da, batez ere lagun edo sende baten gomendioa jarraituz.

Eskolak egunero izaten dira eta Jose Luis Longaron eta Leire Markinez, ikastaroko irakasleak, bertan izaten dira gomendioak ematen eta behar denean zuzenketak egiten. Urte hasieran ikasleak ordutegi zehatz bat jarraitzeko matrikulatzen dira, baina azkenean nahi duten unean joan daitezke lantegira. Klaseak astelehenetik ostegunera izaten dira, baina nahi izanez gero, eta Kultur Etxea irekita badago, ostiralean ere joan daitezke bertara.

Eskola hauetara joan nahi dutenek kuota bat ordaindu beharra izaten dute. Ordainketa urte hasieran egiten da, baina nahi dutenek bi zatietan ere egin dezakete, lehenengo irailan eta bestea otsailan. Gertatzen da ikasleek lehen kuota ordaintzea, baina biga-

rrena ez, jarraitu nahi ez dutelako, baina hau ez da izaten ohikoena.

Pinturan barneratzen

Tailerlean oleoz eginiko koadroak egiten dira, baina lehenengo egunetan hasiberrientzako marrazketa klaseak egiten dituzte. Bertan, ikasleek koadro baten zati desberdinak aztertzen dituzte, adibidez, konposaketa eta armonia. Kurtso hasieran koloreak nahasten eta laminak hautatzen erakusten zaie pintura munduan murgiltzen has daitezke. Pinturaren oinarriko puntuak ondo ikasi ondoren, ikasleak beraien lehen koadroak margotzen hasten dira. «Koadroak egiten asko ikasten da», dio Markinezek, ikastaroko irakasleak. Bi edo hiru hilabete beranduago, ikasleek ez dute inongo laguntzarik behar obra berri bat egiteko. «Ikasleek oso azkar ikasten dute laminak eta pintzelak hautatzen eta hori oso ondo dago. Hasieran koadro sinpleak egiten dituzte, baina azkenean praktikarekin oso gauza politak egiten amaitzen dute», dio irakasleak.

Maila handiko ikasleak

Pintura lantegi honetan oso margolari onak daude, eta urte ugari daramaten koadro ikusgarriak egiten dituzte. Duela hamabost edo hamar urte hasi zirenak oso maila altua lortu dute eta irakasleak «oso harro» daude tailerlean dagoen maila eta lan dinamikarekin. «Batzuetan esperientzia han-

dia duten ikasleek irakasle bezala ere aritzen dira ikasle berriekin», diote. Duela gutxi hasi direnak, aldiz, beste maila batean ibiltzen dira, baina pixkanaka eta esfortzuz eta ilusio handiarekin hobetuz doaz.

Jendea «oso gustura» joaten da, eta nahiz eta arte eskola exijentzi handiko ikastaro bat ez izan, oso pozik daude irakaskuntza mailarekin. Batzuk lanean gogor aritzen dira, beste batzuk denbora pasan,

baina azkenean denak ikasteko eta gauza berriak egiteko gogo berdina erakusten dute. Gainera, «oso giro ona» dago tailerlean, eta irakasleak oso lanpetuta badaude denak elkarri laguntzeko prest azaltzen dira.

Ikasturtea amaitzen denean, Aranburu jauregian erakusketa antolatzen dute ikasleek egin dituzten koadroekin. Kultur Etxean antolatzen diren beste ikastaroetan eginikoak ere erakusketa horretan jartzen dituzte. Udara iritsi eta klaseak amaitu baino lehen, irakasle eta ikasleek bilera egiten dute ikasturteko balorazioa egiteko. Azken hauek beraien kezak, arazoak eta proposamenak aurkezten dituzte, eta honen arabera datorren urteko ikastaroa antolatzen dute.



Urte asko daramaten ikasleek koadro ikusgarriak egiten dituzte. HARRIET BELLOSO

Juan Ugarte alkate kargutik kendu dute gainerako zinegotziek

Bidegoian » Herenegun zentsura mozioa onartu zuten EAren zinegotziek konfidantzarik eza» dela eta.

NEREA URBIZU

Juan Ugarte orain arte Bidegoiango alkateak (EA) ez du alkate jarraituko, herenegun iluntzean egindako ezohiko bilkuran zentsura mozioa aurkeztu baitzuten gainerako sei zinegotziek.

Zentsura mozioa aurkeztu zuten herenegun ezohiko bilkuran, Juan Ugarteren kontra. Zentsura mozioa aurkeztu ondoren, Ugarterek arrazoiren bat eskatu zuen, eta bilkuran Pello Arzallus Egigurenek esandakoa «Ugarterekiko konfidantzarik eza» izan zen.

Aste Santuaren aurretik, Udala

osatzten duten alderdikideek mozio bat aurkeztu zuten, bertan eskatuz Juan Ugarte alkatetzat postutik kentzeko. Bere ordez, Pello Arzallusek kargua hartuko luke. Herenegungo batzar orokorrean Udaleko beste sei zinegotziek sinatu zuten mozioa. Honela, Bidegoi-alkate berria izango du, Pello Arzallus.

Ugarterek zinegotzi izaten jarraituko du Bidegoiango Udalean. Beraz, Udala honako hauek osatzten dute, EA alderdia ordezkatzuz: Pello Arzallus (alkatea), Inazio Otaño, Jabier Dorronsoro, Txomin Iraola, Imanol Zugasti, Anjel Altuna eta Juan Ugarte, orain arte alkatea izandakoa.

Hamaika urtez alkate

Ezohiko bilkuran jende asko azaldu zen. Harridura ikus zitekeen bertan.



Juan Ugarte hamaika urtez izan da Bidegoiango alkatea. N. URBIZU

11 urte egin ditu alkate EA alderdiarekin. Alkatorde zegoen, eta ordura arteko alkatea hil zenez, berak hartu zuen kargua 1997an.

I Iritziak



Tolosaldeko bizilagun bat.

«Atzetik zer edo zer egon behar da, bestela ez da logikoa horrela jokatzeko. Hala ere, Guatemalatik Guatepeorrera doazela iruditzen zait Bidegoiaren».

Miren. «Horrelakoetan beti egoten da zerbait atzean. Ez da normala, konfidantza egun batetik bestera galtzea. Gainera urte asko daramatza alkatetzan, eta joan den maiatzean, Udala berriro osatzerako oso ongi ezagutzen zuten, eta bazekiten nolakoa zen. Hor besterik dago, eta komeni da trapu zaharrak ateratzea. Jakin nahiko nuke benetako arrazoiak zein den. Ziurrenik, herritarrek jakingo baitute».

Joseba. «Herri txikitetan beti daude trapu zaharrak. Hautsak astinduko balira zenbat gauza aterako lirakeen! (ez bakarrik Bidegoiaren, herri guztietan baizik). Ea herritarrek zein posizio hartzen duten: horiek ere izango dute zer esan».

II. Poltsiko Antzerki Lehiaketa abian jarri dute

Aduna » Asvineneak Ardilatxa elkartearekin batera antolatutakoan izena emateko epea, bihar bukatzen da.

ERREDAKZIOA

Asvinenea arte eszenikoen laborategia eta sustatzaileak Bigarren Poltsiko Antzerki Lehiaketa antolatuko du. Ardilatxa elkartearekin elkartuta aurten «Organizazioa bezala izendatu dugun lan taldea» sortu du. Joan den urtean izan zen lehen aldiz lehiaketa hau, eta ekimen honek izandako arrakasta ikusita, aurten animatu egin dira ere: bihar da izena emateko azken eguna, www.asvinenea.com webgunean, izen-ematea eta baita informazioa ere (685 751 844).

Lehiaketa apirillean eta maiatzean zehar izango da. Sariak, berriz, honakoak dira: Ardilatxa saria antzerki obra onenari (1.000 euro); Ardilatxa saria ikusle goaren arabera (500 euro) eta Asvinenea saria kultura promozioari, hau da, kafe eta antzoki desberdinetan antzerkia egiteko aukera.

Antzerki hauen helburuak

Helburuak hauek dira: formatu zabalteko ikuskizunen sustapena eta txabalketa; teknika eszenikoen ikerketa; balore berrien forma-



Joan den urteko poltsiko antzerkiko obra bateko une bat. HITZA

kuntza, kultur trukerako espazioen sortze eta kudeaketa, eta beste elkarteekin kolaboratzea.

Parte hartzeko oinarriak

Organizazioak oinarri hauek zehaztu ditu parte hartu nahi dutentzat: izena emateko beharrezkoak dira testuaren kopia edo obraren sinopsia; piezaren titulua eta parte-hartzaileen izen artistikoa eta datu pertsonalak; harremanetan jartzeko telefono zenbaki bat; piezaren behar teknikoak.

Izen-ematea egiteko parte-hartze orria bete egin behar da (www.asvinenea.com). 30 euro ordaindu beharko dute seinale gisa eta parte-hartzea bukatutakoan

Finalerdi bakoitzean bi pieza aukeratu dituzte, epaimahaiaren eta ikusleen botoarekin

Izena emateko parte-hartze orria bete egin behar da Asvinenearen webgunean

Lehiaketa zazpi galatan garatuko da eta beti Asvinenean 22:30ean, apirilaren 4tik aurrera

bueltatuko zaie. Profesional zein amateur-ek har dezakete parte, baina antzerki piezek originalak izan behar dute, iraupena, 8 eta 15 minutu bitartekoa. Hauetan, kide kopurua, gaia eta teknika libreak izango dira eta parte-hartzaile bakoitzeko pieza bat aurkez daiteke. Pieza bakoitzaren muntaia eta desmontaia 3 minuturen azpitik egin beharko da.

Zazpi gala, apiriletik aurrera

Lehiaketak aurrera egin dezan, 16 pieza aurkeztu beharko dira guxtienez, 24 gehienez. Organizazioak aukeratu ditu piezak, kantitate hau gainditzen bada.

Lehiaketa 7 galatan garatuko da eta beti Asvinenean (Zubitziki poligonoa 15, Aduna), 22:30ean, eta

egunero 4 eta 6 pieza bitartean ikusteko aukerarekin: apirilak 4, apirilak 11, apirilak 18 eta apirilak 25. Finalerdiak maiatzaren 9an eta 16an izango dira. Finala, berriz, maiatzaren 23an.

Finalerdi bakoitzean 2 pieza aukeratu dituzte, finalera joango direnak, hain zuzen ere. Bata epaimahaiaren botoarekin eta bigarrena publikoaren botoarekin.

Organizazioak gala bakoitza grabatzeko eskubidea erreserbatzen du, hala nola hauen zabalkundea, beti ere piezen autoreen onarpenarekin. Aldi berean, Organizazioak eskubidea du aldatetaren batgehitzeko edo dataren bataldatzeko, lehiaketaren martxa onari eusteko. Aldaketa oro aurrez jakitera emango dute.

Beraz, antzerkia gustuko dutenek eta lan polit bat egin nahi duten taldetxoek aukera bikaina dute Asvinenean antolaturiko ekimenaren bitartez.

Iragarki laburrak

SALGAI

Etxebizitza. Tolosa erdian bilogelako etxea salgai, egoera onean, oso merkea. Interesatuak deitu: 665 70 86 35.



Aurtengo kartela hau da. HITZA

E Elkarrizketa

ENAITZ OSTOLAZA Txakolin egilea

Ibarra » Getarian jaio zen, Ibarako Ikastolan ikasi zuen eta sorterrira itzuli da haurtzarotik ezagutzen zuen txakolinaren ondora. Galdaragintza goizean baserria arratsaldean.

ASIER IMAZ

Bost urterekin Ibarra etorri zen, Ikastolan zazpi urte ibili ondoren, Getariara (Gipuzkoa) itzuli zen, aitarekin Agerre baserrian txakolina egiten hasteko. Hala eta guztiz ere, ez da Ibarraz ahaztu Enaitz Ostolaza (Getaria, 1991), familia eta lagunak bertan baititu oraindik eta asteburuetan, tarteka, hara joaten dela aipatzen du.

Getarian eta Ibarren izango dituzu orain lagunak, ezta?

Getarian txikitan ezagutuak eta Ibarren 7 urte horietan eginak.

Ibarra joaten al zara?

Tartean joaten naiz. Orain, egia esan, gutxiago, hemen ere lana izaten da eta.

Getariko Agerreko bizimodua ala Ibarra duzu nahiago.

Hau lasaia da. Hura kalea da eta ez dago alderatzerik. Aukeran baserria nahiago.

Ikasketak egiten ari zara edo erabat aitarekin zabilta txakolindegian?

Zumaian (Gipuzkoa) galdaragintza ikasten nabil, orain praktikatzen. Goizetan ikasi egiten dut eta arratsaldeetan baserria etortzen naiz lanera. Hemen beti egoten da zeregina eta lanera etorri behar ixil-ixilik.

Etorkizunari begira?

Hurrengo urtean lanean hasiko naiz, aitak esaten dit orain ofizioa ikasteko, gero ere hau hemen egongo dela. Eta arrazoi du horretan.

Noiz hasi zen aita txakolinaren mundu honetan?

1986. urtean hasi zen aita txakolina egiten. Baserria aitonarena zen eta lehen galeperrak zituzten hemen. Txakolina ere egiten zuten orduan baina ez orain bezala, askoz gutxiago. 1986ean galeperrak utzi eta erabat txakolina egiten hasi zen aita.

Asko aldatuko zen ordutik hona produkzioa. Gogoratzen al duzu nolako zen hasieran?

Txikitan asteburuetan etortzen nintzen eta gauza batzuk gogoratzen ditut, txakolina nola egiten genuen eta gauzak nola aldatu diren. Teknologi mailan aldaketa handia egon da, lehen dena eskua-ekin egin behar izaten zen eta orain makina gehiago dauzkagu.

Haserako mahatsa izango duzue lur sail guztietan, ezta?

Azken urte hauetan mahasti batzuk aldatu ditugu baina aspaldi landatutako mahastiak dira gehienak. Mahatsa gaztea denean onda-



ASIER IMAZ

«Goizetan ikasketak eta arratsaldeetan baserria etortzen naiz lanera»

rra txuriagoa izaten da, mahatsa zaharragoa denean ondarrari beltza deitzen zaio.

Kalitetearen eraginik ba al du gaztea edo zaharra izateak?

Nik baietz esango nuke baina ez dakit ziur hori horrela izaten den ala ez.

Mahastiek urtean zehar zer lan eskatzen dute?

Neguan mahatsa kimatu egiten da. Gero denbora pixka bat uzten duzu eta adarrak lotzen hasten zara, aurreko urtean mahatsa ematen duen adarra aske egoten

baita. Udara aldera adarrak moztu egiten dira mahastia txukundu egiten da horrela. Kimatu ostean hostoa eta lorea ateratzen hasten denean mahatsa ematen hasten dira poliki-poliki, mahastia txukundu egin behar izaten da argi gehiago jaso dezaten. Horrela, mahatsa ugariagoa etortzen da. Azkenik mahatsa bildu egiten da.

Noiz hasten zarete mahatsa biltzen?

Irailaren erdialdean edo hasten gara biltzen. Jende asko bada lau edo bost egunetan biltzen dugu

mahats guztia, bestela egun gutxi batzuk gehiago behar izaten ditugu.

Mahatsa hartu eta gero nora eramaten duzue? Nola jarraitzen du produkzioak?

Plastikozko kaxetan jartzen dugu eta baserriara ekartzen dugu. Txikitze ontzia handi batera botatzen dugu eta hortik tolare barrura pasatzen da. Tolareak hainbeste kilo hartzen ditu eta barnean dagoen mahatsa estutu egiten du, alden gehiena estutzen du. Likidoa edo zukua behera erortzen da eta sus-

traiak barruan geratzen dira. Tra-torearekin, geratu dena eraman egiten dugu.

Tolaretik nora doa zukua?

Zuzenen deposituetara joaten da. 14 depositu ditugu eta bakoitzak 9.000 litroentzat lekua dauka. Guztira 126.000 litro gutxi gorabehera baina ez dira normalean deposituak goraino betetzen. Horretaz gain, normalean 12 depositu erabiltzen ditugu.

Zenbat denbora egoten dira barrikan?

Irailen sartzen dugu eta normalean martxora arte edukitzen dugu. Txakolina lehenago ateratzen baldin bada, oso gaztea egoten da. Txakolina lasai-lasai uzten baldin bada, orduan egindako txakolina ateratzen da, txakolin ona. Zentzu batean ardo bezala da, denbora-ekin hobetzen joaten da.

Irailetik martxorako tartean, berri lanera.

Kimaketa lanekin hasten gara. Mahastia prestatu egin behar izaten da hurrengo urtean berri mahatsa eman beharko du eta.

Deposituetatik nora joaten da ondoren?

Botilatzeko makinara joaten da txakolina mangera batzuen bidez. Txakolina gaztea baldin badago zikina egoten da eta filtrotik pasatzen da, garbitzeko. Filtrotik pasa ostean, botiletan sartzen dugu.

Zer lan egiten du botilatzeko makinak?

Katean sartzen dira lehenik botilak eta ilaran joaten dira. Barruan garbitu egiten ditu eta gero beste toki batetara eraman. Han txakolinaz betetzen dira eta bukaeran kortxoak sartzen dizkio banaka banaka botila bakoitzari. Hiru zati bezala ditu, lehenbizi botilak garbitzen ditu, gero bete eta gero kortxoak sartu. Ondoren kaiolatan sartzen dira eta botilak sekatu arte almagazenean edukitzen ditugu. Sekatzean etiketagailura eramaten ditugu eta han banaka banaka Getariako txakolinaren jatorri-izena duen etiketak jartzen dizkiogu. Ondoren kaxetan sartu eta merkatura iristen dira, bertan saltzeko.

Nolako da zuen aurtengo txakolina?

Esan behar da ez dela oso urte ona izan. Gaitzak lan asko eman digute baina geratzea lortu genuen. Azkenean txakolina nahiko polita lortu dugu eta hori da garrantzitsua.

Sagardoa ala txakolina duzu nahiago?

Txakolina. Hori daukat begien aurrean, baina hala ere, nahiago dut txakolina.

Haragiarekin edo arrainarekin edan behar da txakolina?

Nik haragiarekin ere gustura edaten dut, baina arrainarekin hobeto. Nik hori gomendatuko nuke, arrainarekin dastatzeko.

Zuri zer txakolin klase gustatzen zaizu?

Pixka bat bizia dena. Ez zait gustatzen motela edo gozoa dena. Bizi puntua daukana gustatzen zait.



Besteak beste, Avellanedako Juntetxea ikusteko aukera izango dute apirilaren 12an txangoa egiten dutenek. HITZA

Euskal Herriko txokoak ikusteko ekimena martxan

Aisia » Euskal Herrian Barrena izena du ekimen honek eta Manuel Larramendi Kultur Bazkunak antolatzen du.

ERREDAKZIOA

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak antolatzen duen Euskal Herrian Barrena egitarauaren barruan bidaia edo txango monografikoak egiteko aukera jarri dute martxan (egun batekoak edo bikoak). Lehen irteera datorren apirilaren 12an izango da, larunbatean, eta parte hartzen dutenek Bizkaiko hainbat txoko ezezagun ezagutzeko aukera izango dute.

Bizkaiko Jaurerriaren mugetan Lehenengo txango honi Bizkaiko Jaurerriaren mugetan eman diote antolatzaileek izena eta horren bitartez Balmaseda muga-herria,

Avellanedako Juntetxea eta beste hainbat leku eta ondare ikusgarri ezagutzeko aukera izango dute bitartek.

Izema ematen dutenek txangoari goizeko zortziak aldera emango diote hasiera eta iluntzeko bederatzietarako etxean izango dira berriro. Josu Zumeta egitarauaren arduradunak adierazi duenez, «txango monografiko hauetan 10 eta 80 urte bitarteko euskaldunek har dezakete parte».

Txangoa egun osokoa izango denez, eguerdiko bazkariari dagokionez antolatzaileek 2 proposamen luzatu dituzte, eta txangoa egiten dutenek bata edo bestea aukeratu ahal izango dute: norberak bere bazkaria eramatea eta bere kontura bazkaltzea (hau lehenengo aukera litzateke), edo antolatzaileek hautaturiko ostaturen batean otordua egitea. Lehenengo aukera hautatzen dutenek 20 euro inguru ordainduko dute bidaia eta

bisitak egiteagatik, eta bigarren aukera hautatzen dutenek 30 euro inguru.

Euskal Herria ezagutzeko

Euskal Herria bertatik bertara ezagutzeko eta aisialdia euskaldunentzako xedez sorturiko Euskal Herrian Barrena egitasmoaren barruan 2008an 6 txango monografiko antolatu ditu Larramendi Bazkunak 18 eta 80 urte bitartekoentzat, eta asteburu osoko beste 8, 18 eta 30 urte bitartekoentzat.

Informazio gehiago jaso nahi izanez gero 943 69 64 50 zenbakira deitubehar da edo txangoak@topagunea.com helbide elektronikora idatzi. Izen-emate epea txango bakoitza burutu beharreko data baino astebete lehenagora arte luzatuko da. Larramendi Bazkunak eskuorriak eman ditu argitara. Hauek, Larramendi Bazkunaren kultur etxeetan eta ohiko informazio-guneetan jaso daitezke.



Ikastaro ugari antolatzen dituzte urtero Fraisoron. HITZA

Astelehenean landa turismoaren inguruko ikastaroa hasiko da

Zizurkil » Fraisoron emango dute eta 200 orduko iraupena izango du, uztailaren 15ean amaituko delarik.

ERREDAKZIOA

IMK-k (Itsasmen-dikoik) Nekazal-turismo eta Landa Turismoaren inguruan VII. Ikastaro Trin-koa delakoa antolatu du. Ikastaroak Euskal Herriko 3 zentroetan emango dituzte: Zizurkilgo Fraisoron, Derion eta Arkauten. Ikastaroak 200 orduko iraupena izango du eta datorren astelehenean hasi (martxoaren 31an) eta uztailaren 15ean amaituko da.

Antolatzaileek azaldu dutenez, «aurtengo berrikuntza metodologiarekin lotuta dago», izan ere, Internet bidezko eta eskolako bertako ikaskuntza uztartuko baitituzte. «Metodologia honek abantaila handiak dauka, ikasle bakoitzak bere erritmoa eta ordutegia ezarriko baititu, klase presentzialak galdugabe».

Ikastaroaren edukia

Ikastaroa nekazaritzako errentak beste jarduera baten bidez osatu nahi dituzten nekazariak eta abeltzainak zuzenduta dago, sektore honetan hasi nahi duten landa eremuko gazteak eta arlo tekniko jakin

batzuetan bere ezagutza zabaldu nahi duten landa-turismoetako jabe edo arduradunak.

Ikastaro tekniko-praktikoari dagokionez, landa ostaturen kudeatzaileek ezinbestean jakin behar dituzten gaiak jorratuko dituzte: enpresa bat sortzeko proiektua, araudia, laguntza ofizialak eta laguntza zerbitzuak, ostatu ematea eta sukaldaritza, ingurumena, turismo arloko marketina eta komunikazioa eta landetxe bat kudeatzeko oinarriak.

Helburua

Landa-eremuan turismoa gorantz doanez, ikastaro honen antolatzaileek beharrezkotzat jotzen dute eremu honetan turismo ekintzak kudeatzen dituzten edo kudeatzen hasi nahi duten pertsonak behar bezala prestatzea, enpresa arloko interesen, landetxeen arduradunen, turisten eta inguruko enpresen interesak orekatzen saiatuz.

Berrikuntza

Metodologiari dagokionez, berrikuntza gisa B-Learning izeneko metodologia erabiliko dute. Honek, Internet bidezko eta eskolako bertako ikasketak uztartuko dituzte. Eskola gutxi izango dituzte, eta eskolak osatzeko, *e-learning* bidezko arketak egingo dituzte ikasleek ikastaroan errazago parte har dezaten.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri
eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Anoeta.** 2008ko jaiak iragartzeko kartela egiteko lehiaketa abian da. Lanak udaletxean aurkeztu behar dira apirilaren 18a baino lehen.
■ **Tolosa.** Gerra Zibilean errepre-sioa jasan zuten biktimen eta fam- ilien informazioa jasotzeko bule- goa Aranburu Jauregian, astelehe- netan 16:00etatik 20:00etara, asteartean 09:30etik 13:00eta- ra eta ostegunetan 09:30etik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, Aranzadi zientzia el- karteak antolatuta.
■ **Villabona.** Aizkardi elkartearen 40. Ibilaldia izango da igandean. Bi ibilbide Leitza zehar: hamar ordukoa, eta 5 ordu eta erdikoa. Izen-ematea, www.aizkardi.com, elkartearen edo 649717182 zenba- kian (20:00etatik 22:00etara).

Erakusketak

■ **Alegia.** Patxi Tena tolosarra ur- tero Kubara joaten da eta bertatik, artea ikasten duten ikasleen lanak ekartzen ditu. Ikusgai hilabete osoan zehar jubilatuen tabernan.
■ **Tolosa.** Tomas Hernandez Mendizabal artista donostiarraren erakusketa Aranburu Jauregian.
■ **Tolosa.** Txetxo Gaztañaga artis- ta tolosarraren margolanak daude ikusgai Aranburu Jauregian.

Zinema

■ **Tolosa.** 17:00etan *Betizu eta urrezko zintzarria* (euskaraz). 19:15ean eta 21:45ean *Rec* zine fo- rumaren baitan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Abian da VII. HITZA Argazki Lehiaketa. Aste Santuan ateratako irudiak badituzu har ezazu parte lehiaketan, opariren bat eskuratzeko aukera izango baituzu; hauxe da iritsi zaigun lehen argazkia.

Aste Santuko lehen irudiak



PARIS • Juanen Montoro tolosarrak postaletako irudia dirudien argazki hauxe bidali digu. Paris ikusten da, Monpartnasse dorreko 56. solairutik

aterata. «Le ciel du Pariseko (horrela deitzen diote beraiek Pariseko zeruari) ikuspegiak; besteak beste, dorre Eiffel famatua», dio.

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxe bulegoa

agurrak

txokoa **h**

4 sarrera pare zozketatuko ditugu!
deitu eta eskuratu



BRUESA GBC

Ciudad de la Laguna Canarias

IGANDEA

MARTXOAK **30-19:00**

ILLUNBE